

HUHEZIKo ikasleek 6 espezialitate irabazi zuten MUren Unibertsitate Kirol Txapelketan

2009/02/24

Otsailaren 18an **MUko Unibertsitate Kirol Txapelketa** jokatu zen Arrasateko udal kiroldegian, eta bertan jokaturako 15 txapelketetan, Huheziko ikasleak seitan izan ziren garaile. Guztira 170 ikaslek hartu zuten parte txapelketan. Horietatik, 66 Huhezikoak izan ziren, 18 emakume eta 48 gizakume.

Mondragon Unibertsitateak urtero antolatzen ditu unibertsitate kirol txapelketak, eta bertan hiru fakultateetako ikasleak lehiatzen dira, Goi Eskola Politeknikoa, Enpresa Zientzien Fakultatea eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatekoak. Guztira **bederatzi kirol** izan dira: futbola, futbol 7, areto futbola, saskibaloia, frontenisa (banaka eta binaka), eskupilota (banaka eta binaka), pala, tenisa eta eskuasha. Gizonek kirol modalitate guztietan jokatu dute; emakumeek, berriz, futboleant, saskibaloian, frontenisean banaka eta tenisean.

Emaitzei dagokieriez, **Goi Eskola Politeknikokoek bederatzi txapelketa irabazi zituzten**, eta **Huhezikoek sei**. Lehiaketaren ostean, ikasleek MUko jantokian bazkaldu zuten. Partaide guztiek elastiko tekniko bana izan zuten opari, eta irabazleek, jertse bana.

MUko garaileek aukera izango dute martxoaren 5ean **IX. Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketan** parte hartzeko. Hori Arrasaten jokatu da, eta bertan lehiatuko dira EHU eta Deustuko unibertsitateetako ikasleen kontra.

